

## Egitaraua

- 09:00 h: Hasiera instituzionala.  
Sergio Murillo Corzo, Gizarte Ekintzako diputatua.
- 9:30 h: Iraupen luzeko zaintzetan aurrera egiteko esparru-ponentziak.  
Asier Alustiza aurkezle eta moderatzaile.  
Autonomia Pertsonala Sustatzeko zuzendaria.
- Zainketa-ereduak eskubideak dituzten pertsonentzat: ikuspegi etikoa. Marije Goikoetxea, Giza Eskubideetan doktorea, Deustuko Unibertsitatea. Bizkaiko GEEBko kidea.
  - Pertsona ardatz hartzen duen koordinazioaren **erronka**. Lourdes Zurbanobeaskoetxea, Bizkaiko Iraupen Luzeko Zainketen Planaren koordinatzailea. Bizkaiko GEEBko presidentea.
  - Egoitza-zaintzak hobetzeko ildoak. Brígida Argote, Adinekoentzako Lakua egoitzako zuzendaria (IFBS). Arabako GEEBko kidea.
  - Galderak.
- 11:00 h: Atsedendaldia.
- 11:30 h: Mahai-ingurua: Etika-batzordeei buruzko hausnarketa.  
Lourdes Zurbanobeaskoetxea aurkezle eta moderatzaile.
- Bizkaiko GEEBek aztertutako gatazka etikoak. Juana Aza. Leioako laguntza-zentroko erizaina (GUF). Bizkaiko GEEBko idazkaria.
  - Begirada bat osasun-sistematik. Ana Barrena. Familia eta komunitateko medikua Errekaldeko osasun-zentroan. Bizkaiko Lehen Mailako Arretako Laguntza Etikoko Batzordeko kidea.
  - Iraupen luzeko zainketak desgaitasunaren eta osasun mentalaren esparruan. Olaia Arana. Gizarte-langilea. Hurkoa. Gipuzkoako GEEBko kidea.
- 12:15 h: Iraupen luzeko zainketak eta bizitzaren amaiera.
- Eufanasia eta autonomia mugatua duten pertsonak: legezko betekizunak eta gatazka etikoak. Jose Antonio Seoane. Zuzenbidearen Filosofiko katedraduna Universidade da Coruña. Galiziako Autonomia Erkidegoko Eutanasiaren Berme eta Ebaluazio Batzordeko kidea. Espainiako Bioetika Batzordeko kidea.

## Iraupen Luzeko Zainketetan Aurrera Egiten: Hausnarketa Etikoak

Azken urteotan, aldaketa demografiko handiak gertatzen ari direla ikusten dugu, eta orobat aldatu dira zaintzea behar duten pertsonen itxaropenak eta premiak. Horrekin batera, erronka berriak sortzen ari dira zerikusia dutenak eskubideen errespetuarekin eta pertsonak beren arretaren ardatz gisa dituen esparru etiko bat betetzearekin, zeren eta, gaur egungo ikuspegiaren arabera, zainketek, tresna hutsa izateaz gain, badute zerikusirik pertsonen bizi-proiektua eta haren zentzua maximizatzearekin, are mendekotasuna eta/edo desgaitasuna duten pertsonen kasuan.

Horri buruzko gogoetan aurrera egiteko asmoz, Bizkaiko Foru Aldundiko Gizarte Ekintza Sailak, Gizartean Esku Hartzeko Etika Batzordearekin batera, Etikari eta Gizarte Zerbitzuei buruzko jardunaldia antolatu du, izenburu honekin: "Iraupen luzeko zainketetan aurrera egiten: Hausnarketa etikoak".

Jardunaldia honako hauentzat da, batez ere:

- Bizkaiko gizarte-zerbitzuetako arduradunak eta profesionalak.
- Gizarte-zerbitzuetako arlo guztietako zentro eta zerbitzuetako arduradunak eta profesionalak: adinekoak, desgaitasunak, gizarteratzea, haurrak.
- Arlo sozio-sanitarioko erakundeetako arduradun nahiz profesionalak.
- Asistentziaren etikako eta esku-hartze sozialeko batzordeetako kideak.
- Gizarte-zerbitzuekin zerikusia duten beste eremu profesionalak.

**IZEN EMATEA DOAN DA;** plaza erreserbatu behar da, eta horretarako ondoko bitartekoak erabil daitezke:

- [www.bizkaia.eus](http://www.bizkaia.eus) web-aren bitartez
- Posta elektronikoa: [topaketak@bizkaia.eus](mailto:topaketak@bizkaia.eus)
- Telefonoa: 94 406 8000

## Etikari eta Gizarte-Zerbitzuei buruzko Jardunaldia

### Iraupen Luzeko Zainketetan Aurrera Egiten: Hausnarketa Etikoak

**Euskalduna**  
Jauregia

**9:00etan**  
**2022ko urriaren 7an**  
**[www.bizkaia.eus](http://www.bizkaia.eus)**

CEIS GEHEB BIZKAIA



Gizartean Esku-hartzeko Etika Batzordea  
Comité de Ética en Intervención Social

**Bizkaia**  
foru aldundia  
diputación foral